

Astekaria

BAARRRE

elgoi



Mendaroko umorea Txiskolan

LEIRE ARZUAGA



Trenbide kalea, 23 - Tel. 74 20 67

CASANUECES

Arte dekoratzaileen denda

KLASEAK EMATEN DITUGU

Eskulanak · Altzari birziklaia · Errestaurazioa

Pintura dekoratiboa



MEDIKUNTZA eta KIRURGIA KONTSULTATEGIA ANALISIEN LABORATEGIA

- Metabolismoak eta elikadurak eragindako gora-beherak.
- Haur eta gaztetxoek hazkundera eta koskortzea.

Cesar G. de Martino
3.500.SS. Mediku kolegiatua
Elena Rodriguez Atxurra

Egiguren kalea, 6 - EIBAR - Tel. 20 60

BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA

REZOLA GASOLINDEGIA

Deba kalea, 20 - Tel. 74 00 17 - 20870 ELGOIBAR



ZERBITZU BERRITUAK

Presiozko garbiketa
Garbiketa neumatikoa
Aspiragailua

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

ZENBAT BURU



Loditasuna, elikaduraren ondorioa

HAINBAT ABURU

Europako biztanleen bosteko batek loditasun arazoak omen dauka. Horixe bera esan zuen elikadura arloan aditua den OMSeko (Osasunaren Erakunde Mundiala) partaide batek Udako Unibertsitategian joan den abuztuan.

Suediar mediku honen konferentziatik ondorio interesgarri batzuk atera daitezke. Medikuntza orokorrean, eta partikulariki elikadura alorreko medikuak, zeharo kezkatuak daude pertsona gizen edo lodien gehikuntza dela eta, loditasunak ondorio asko dakartzalako familia giroan. Medikuek loditasuna epidemia internazional bezala definitu zuen. Ingalaterran egin den ikerketa batek dioenez, loditasunaren gehikuntzaren ondorioz Europako herrialde batzuetan osasun aurrekontuaren %5etik %7ra bitartekoa (HIESa eta minbizia bezainbeste) loditasunarekin zerikusia duten gaitetara zuzendua dago.

Tamaina ikaragarri honetako arazo batentzako irtenbide baten bila dabilta OMSekoak. Hau argitzen duten bitartean, egin dezakegun gauza egokiena prebentzioan sakontzea da.

Bi loditasun desberdin daude: zentrala eta periferikoa. Hauetatik arriskutsuena zentrala da, koipe gehiena pertsonaren sabelean kontzentratzen baita. Horrela, diabetisa, hipertentsioa eta bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua handitzen da.

Loditasunaren aurka tratamendu eza-gunak dieta eta kirola dira. Lehen golpean oso erraza izan beharko luke loditasuna

menperatzeak; agian ez da hain erraza loditasun arazoak dituen jende kopurua ikusiz.

Elgoibarko Izarrak elikadurari buruzko hitzaldi batzuk antolatu zituen neguan, eta joan zen jende kopuruarengatik interes handia sortu zuen gai honek.

Eskasia garaietan jendeak ahal zuena jaten zuen. Diru falta izateaz gain, sasoiako produktuak bakarrik baitzeuden, eta ez beti nahi adina.


Gaur egun, garraiobide eta konserbatzeko aparailuak direla eta, edozein denda edo azokatan, nahi adina produktu desberdin aurki daitezke. Hori dela eta, erostea erraztu egin da baina prezio-kalitate aukera egokia egin ahal izateko ideia argiak izan eta publizitatearen influentzia alde batera utzi behar dira.

Elikadurari buruz, azkenaldi honetan irakurri dudan albiste kurioso batek gaileten kontsumoaren igoera Espainian du gaitzat. Azken urtean %5,5 igo da gaileten kontsumoa, batazbesteko 6 kg. gaileta jaten omen ditu pertsona bakoitzak. Areago, Castilla-Leon lurraldean 14 kg./pertsonako da gaileten kontsumoa, izan ere hor baitaude kokatuak gaileta fabrika gehienak. Ziur egon gaitzke publizitate agentziek lan asko egingo dutela Espainiako gaileta kontsumoa, 14 kg./pertsonako mailara igo dadin.

Beraz, etxeakoandreak lan galanta daukagu gure etxeetan elikadura egoki bat egon dadin.

Milagros Oiarzabal

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

ç Anbulategi pareko errebueltan, zakar kontenedoreak dauden tokian, kartoi-paper pilo bat egoten da. **Ez al da posible paper kontenedore bat jartzea?** Mankomunitateko arduradunek esan digutenez momentu honetan ez daukate paper kontenedorerik. Halere eskaria jaso dute eta berriak jasotzen dituztenean aztertuko dute anbulategi parean dagoen beharra.



KEXAK

- Andra batek Mintxetako harmailetako jarlekuak beti **oso zikinak** egoten direla salatu nahi du. "Garbitzen al ditu norbaitek?". Eta garbitzen badituzte ere, egia esan, ez da igartzen".

- Irakurle batek deitu digu Ubitartetik Trenbide kalera bitartean dagoen **trafiko-ispilua** San Bartolome jaietatik **apurtuta** dagoela salatzeke. Berak esan digunez, Udaltzaingora jo zuen eta hangoek esan zioten herrian beste 8 ispilu daudela apurtuta. Era berean, hauek konpontzeko baimena sinatua dagoela ere esan zioten. "Hortaz, zeren zain daude berriak jartzeko?"

- **San Roken** bizi den emakume batek deitu digu Institutu parean dauden **dendenurrealdea oso lotsagarria** egoten dela salatzeke. Ikasleei arreta eta garbitasun piska bat eskatu nahi die.



TXALOAK

Emakume batek deitu digu **aurreko asteko erreportaia** (Elgoibartarrak primeran) asko gustatu zitzaioela esateko.

ESKUTITZAK

650. urteurrenaren erreportaia

1 66. zenbakian atera zen "Elgoibarren 650. urteurrenari buruzko erreportaian, herriari buruz ematen zen informazioan, "Gazte mugimenduei" buruzko atal bat zegoen. Baina "mugimendua", ibiliz adierazten da.

Gazte Asanbladak ehundaka ekintza egin ditu 1985etik hona. Zazpiki irratia 12 urte daramatza emititzen. Talde Antimilitaristak 1987tik dihardu lanean. JARRAI ere ikusi dugu kalean. Guztiek ekintzak egiten dituzte jaietan, etab. Zera da, "mugitu" egiten dira.

Baina EGI nortzuk dira, nondik datoz, nora doaz? Herriko gazteriaren aldeko ekintza bakar bat ere ez dugu ezagutzen, ezta erreibindikazio bakar bat ere, zero. Pare bat aldiz bakarrik, EGIN eta Pepe Reiren aurkako beren karteekin herriko paretak zikindu zituztenean.

J. A.

zela eta. Bere delitu (?) bakarra militarrei eta beraien "baloreei" uko egitea izan da gizarte desmilitarizatu baten aldeko apostua eginez.

Elgoibarko Talde Antimilitaristak Ertzantzaren jarrera salatu nahi du gizartearen gehiengoak onartu eta berea egiten duen ejertzitoaren aurkako desobedientzia zibila erreprimitzuz, militarren (eta beraiek ordezkatzan duten guztietan) kolaboratzaile leial direlarik.

Elgoibarko Talde Antimilitaristak dei bat luzatzen die era berean Ertzantzari, baita epaile eta alderdi politikoei ere, intsumisoen arazoaren aurrean gizarteak orokorrean eskatzen duen jarrera aktiboa har dezaten, anbiguetate eta kolaborazionismoak alde batera utziz.

Elgoibarko Talde Antimilitarista

Kolaborazionismorik ez!

Joan den ostiralean, hilak 18, Ertzantzak elgoibartar intsumitu bat atxilotu zuen bilatze eta atxilotze agindu bat

OHARRA: Hilaren 1a, osteguna, Domusantu eguna dela eta, datorren asteko BARRENa, ostegunean, hilak 31, banatuko da.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Erretratu benetan polit hau 1918an San Anton egunean Udal pleno aretoan antzeztu zen obra batekoa da. **Mari Carmen Arriolak** laga digu “altxor txiki” hau. “Maitasun eta gorrotoa” izena ei zeukan antzezlanak, gerra sasoiari bi baserriko familien artean izandako tirabirei buruzkoa. Batzuk karlistak eta besteak liberalak ziren, baina baserri bateko alaba besteko semearekin maiteminduta zegoen. Gerra piztean, maiorazgoak frontera doaz eta bietako bat zauritu egiten da. Hala ere, beste baserriko maiorazgoak sasi ostean ezkutatu eta bizia

salbatzen dio.

Antzezlanean parte hartu zutenetarik bat ere ez dago bizirik gaur egun. Hauexek dira:

Miguel Andonegi, Manuela Zabala, Leoncio Gabilondo, Felisa Arrien, Modesto Arriola, Victoria Gurrutxaga eta Angel Osoro “Mutriku”.

Kontuak kontu, fikzioaz aparte, bertan agertzen diren bi antzeleren artean ere maitasun istorio bat sortu zen obraren antzezpeneren bueltan. Izan ere Victoria eta Modesto maitemindu eta ezkondu egin ziren. Hauek alaba bat izan zuten, Mari Carmen, BARREnera erretratu hau ekarri diguna, hain zuzen ere.

**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

AZALEA
Estetika eta edergintza
— MARI KARMEN BERECIARTUA —
Estetizista · Bisajista · Masajista
Neguari aurre egiozu!
- GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan
merkatuko azken berrikuntzak zure esku.
- DEPILAZIO elektrikoa eta argizariarekin.
Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) ELGOIBAR - Tel. 74 03 10

LANGAI

Lan mundurako zubi berria



Urriaren 17an ireki zituen ateak Langaik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Enplegatze Zerbitzuak. Aurrerantzean, langabetuek 160 zentro baino gehiago izango dituzte EAEn eskaerak luzatu eta lan munduan beste lokarri bat luzatzeko. Elgoibarren, konkretuki, 2 tokitan eskainiko da aipatu zerbitzua: IMH eta Herri Institutuan (Mekanikan).

Gaur arte pertsona batek lanik gabe geratzen zenean INEMera jotzen zuen zuzenean edo, azken boladan, aldi baterako lana topatzen duten agentzia berri horietako batera.

Hemendik aurrera, bestelako aukerarik ere izango da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak martxan jarri du Langaik, Enplegatze Zerbitzua. Horrela bada, orain arte INEMek lan bitartekaritzan zuen monopolioa galdu egingo du EAEn eta Langaik ordezkatu du. INEMen funtzioa, beraz, langabetuentzako prestazioak gestiozera mugatuko da hemendik gutxira, ikastaro eta antzekoak. Lana aurkitzeko bulegoa Langaik izango da aurrerantzean.

Zentro kolaboratzaileak

Langairen lana, langabetuen enplegu eskaerak jaso eta enpresen eskaintzekin lotzea izango da. Hau da, herri desberdinetan Langaik 160 zentro kolaboratzaile ditu. Jendeak horietara jotzen du fitxa betetzera eta zentroak, datu horiek informatizatuz, Langairen egoitza zentralera bidal-

tzen ditu. Zentralean bertan ordenagailuz lan eskaera eta lan eskaintza lotu egiten dituzte, beti ere lanpostuaren perfila hobekien betetzen duten hautagaiak aukeratuz.

Elgoibarren IMH eta Mekanikan izango dira Langairen zentro kolaboratzaileak. Langaik IMHn duen arduraduna den Zigor Esnaolaren hitzetan, “zentroetan fitxa betetzen laguntzen diegu, guk egiten dugu nolabait alde aurretik elkarrizketa eta horren arabera ziurtatu egiten dugu fitxan dagoen guztia egia dela”.

Espezializatuak

Zentro kolaboratzaileak espezializatuak daude. Zigorrek azaldu bezala, “IMHn esate baterako, arlo teknikoak daukagu, bai FP 2ak, modulu 3koak, injinerutzak... eta Mekanikan, berriz, auto-mozioko lanak eta administraritzak egongo dira batez ere”. Hau da, pertsona bakoitzak duen prestakuntza eta esperientziaren arabera zentro batera edo bestera jo beharko du. Lizentziatuek batera, teknikoek beste batera... Honen arrazoia, Zigorrek azaldu digunez,



Elgoibarren Mekanika eta Erreminta Makinaren Institutua dira LANGAIren zentro kolaboratzaileak.

“elkarrizketatzailea ere espezializatua izatea da. Nik ezingo nioke elkarrizketa egin zuzenbidean lizentziatua den bati, hark esandakoak frogatzerik ez dudalako. Gainera, zentro bakoitzaren arabera eskaintzak iritsiko dira seguruena”.

Txanda eskatu eta fitxa bete

Zer egin behar da Langain izena emateko? Lehenik eta behin hitzordua eskatu behar da. Hau da, horietako zentro batera joan aurretik 901222901 zenbakira deitu eta, Zigor Esnaolak esan digunez, “zentralean ematen dute eguna eta ordua bakoitzaren ikasketen arabera gertuen dagoen zentrua zein den esanaz”. Halere nahi duenak zentro kolaboratzaile dei dezake zuzenean. Elgoibarko kasuan bi

telefono daude: 744480 (Meka) eta 744132 (IMH). Hortik aurrera, zentroan bertan fitxa bat bete behar da teknikoaren laguntzaz. Besteak beste, datu pertsonalak (pisua eta altuera barne), ikasketak, ikastaroak, esperientzia, erreferentziak, hizkuntzak, langabetua den, informatika ezagupenak, hobbioak eta kirolak, gidatzeko baimena, lan mota (aldi baterako, praktiketako...), bidaiatzeko aukera izatea, zein eskualdetan lan egin nahi den (herrian, eskualdean, probintzian, Estatu mailan...) eta lan mota.

Hortik aurrera, Langai arduratuko da eskatzaileen zerrenda eta enpresen lan eskaintzak lotzen. Ondorioz, aukeran dagoen lanpostu bakoitzerako hautagai zerrenda bat osatu eta zerrenda enpresetara bidaliko da.

Lana bilatzeko pausoak

▲ Lehenengo norberak bere burua aztertu behar du. Zer egin nahi duen jakitea oso garrantzitsua da. Mundu guztiak balio du zerbaiteko baina denek ez dute balio gauza guztietarako. Pauso zaila da, baina beharrezkoa.

▲ Bigarrenik, helburu lortzeko zer behar den aztertu. Administraria izateko kontabilitatea jakin, makinaz idazten, informatika piska bat... Eta horietarako prestatu.

▲ Langabetuak non lan egin nahi duen garbi izan behar du, prest dagoen herritik, eskualdetik, probintziatik ateratzeko, ordutegia...

▲ Norberak izan duen esperientziaren arabera, zer datorkion ondo aurkitu nahi duen lanari begira. Denda saltzailea izateko, adibidez, jendearekin harremanak izatea asko baloratzen da, eta hori azpimarratu behar da.

▲ Kurrikulum-a egin behar da ondoren. Kurrikulum konkretua lanpostu bakoitzerako, ez bakarra eta berbera toki guztietarako. Horretarako, bi kurrikulum izan behar dira. Batean gauza guztiguztiak idatzi behar dira. Bigarrenean, berriz, bidali behar den tokiaren arabe-

rako datuak, kurrikulum espezifikoak eta oinarritutik baliagarri zaizkigun datuak bakarrik erabiliz. Denda baterako ez da beharrezkoa karrera unitbertsitariora aipatzea, Askoz gehiago baloratuko dute jendearekin izandako harremanak. Ikasketak jar daitezke baina azpimarratu gabe.

▲ Kurrikulum-ak ez ditu bi orri baino gehiago izan behar. Eta bakoitzak bere burua saldu behar du ahalik eta hobekien.

▲ Elkarrizketa bat egiteko deitzen digutenean, joan aurretik enpresari buruzko datuak jakitea komeni da.

▲ Seguritatea izan behar da. Nor bere buruaz ziur egon eta hala adierazi behar da.

▲ Joan aurretik gutxi gora-behera zein galdera izan daitezkeen aztertu eta erantzunak bilatu. Norberak bere alde positiboak indartu egin behar ditu eta ahulak baretu eta horiei buelta eman. Esaterako, elkarrizketatzaileak esperientziadun prestonan heldua nahiago duela esaten badu, gazte izateak suposa ditzakeen abantailak jakinarazi behar zaizkio.

**Kristina Gonzalez
Orientatzailea**

Gero, enpresak deituko ditu hautatuak elkarrizketatzeko.

Halere, hemendik eta abendura bitartean lan eskaerak bakarrik jasoko dira eta horiekin guztiekin egingo da datu basea.

Abenduan, berriz, lan eskaintzei egingo zaie tokia eta orduan hasiko da Langairen benetako martxa. Printzipioz, hilean 8.000 kurrikulum jasotzea espero da EAEan.

LANGAIk ez die kolektibo guztiei irtenbidea ematen

LANGAIren asmoa lan munduan bitartekaritza egitea da, enpresari eta langileen arteko bitartekaritza. Langileen Kurrikulumak hartu eta enpresariaren eskabidearekin lotu.

ELA sindikatuaren ustez honek ez dio gaur egun pairatzen dugun langabeziari inondik inorako irtenbiderik eskaintzen edo errazten. Gure betiko eskaera Euskal Enplegu Bulego Publikoa sortzea da, langileen-gandik eta enpresariengandik hubil egongo den bulegoa, eta ez gure ustez "txiringito informatiko" bat dena sortzea.

Gernikako Estatutoko arlo honen transferentzia jasotzen du. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzak transferentzia hau edukitzeko eskubidearen alde borrokatu beharrean, zera egiten du: txiringito hau muntatu, bere buruaren irudia

garbitzeko besterik balio ez duena.

Gaur egun langabezia tasarik handiena ikasketarik ez duten gizonetako eta emakumezkoen artean


dago bai eta pertsona nagusi edo adinean aurrera doazenen artean ere. LANGAI Bulego Enplegu honek Kurrikulumak jasotzen badi-

tu, **NOLA BIDERATU-KO DU KOLEKTIBO HAUEN SARRERA LAN MUNDUAN? ZER GERTATZEN DA KURRUKULUMik EZ DUEN JENDEAREKIN?**

Kolektibo hauen egoerari irtenbiderik ematen ez bazaio, edo okerragoa dena, behar dutenek ez badute hauen alde ezer egiten, alferrikakoa da gure ustez LANGAIren sorrera eta inplantazioa.

ELAK Euskal Enplegu Bulego Publiko bat eskatzen du, aipatutako kolektibo hauei irtenbide bat eskainiko diona.

Deba Beheko ELA



Truk

Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

HERRI-GAİN

ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

MIREN

arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

Zer iritzi duzu enplegu bulegoei buruz?



MILAGROS IRUSTA
70 urte, etxekoandrea

Gurian suertia euki dou ze, semiak estudixau eta segiduan lana topau zaban Bartzelonan. Baina bada-kitx kolokatzeko problema asko dauala.



DANIEL BUNUEL
57 urte, mekanikoa

Semea INEMn egon izan da bi urtez baina ez diote inoiz lanik eskaini, ikastaroak, berriz, bai. Orain lana topatu du baina beste bide batetik.



ALICIA BARANDELA
21 urte, langabetua

3 urte daramat INEMen baina ez didate deitu. Ez dut inor ezagutzen INEMari esker lana topatu duenik. Langain eman dut izena. Ikusiko dugu!



INAKI EIZAGIRRE
32 urte, elektrizista

52 egunez egon naiz ETT batekin lanean ordua 390 pta. kobratzen, asteburuak barne. ETTak iruzurrak dira eta esplotatu egiten dute.



LOREA ALBERDI
36 urte, administraria

Entzun izan dot asko tartatzen dabela lana topatzen. ETTak, berriz, langabetuarentzako irteera bat da baina adar jotzea, azken finian.



JOSEBA ESNAOLA
31 urte, irakaslea

Beharrezkuak dia lana topatzeko. Ni INEMera juten naiz lana bukatzen jatanian. Lana topatzeko posibilitadia ematen dabe zure kurrikuluma enpresetara bialduz, etab.

GESTIO KOMERTZIALA ERRAZ ERAMAN DAITEKE


Softlan

Dirua eta denbora aurreztuko dituzu

ANALISIA ETA
PROGRAMAZIOA

Pedro Muguruza, 13
20870 ELGOIBAR


Tel/Faxa: (943) 74 43 61



Aktualizazioak. Esperientzia duten analistak zure eskutan.



Elgoibarko 26 Arantxa joan ziren Arantzazura joan den domekan. Oñatiraino autobusez eta handik kantuan eta umore onean oinez igo ziren Arantzazura. 2 ordu tardatu zuten. Arantxa guztiak oinez abantuatu ziren eta alboan, furgonetan, Jon Sararsua eta Arantzazu Loidi ber-tsolariak alaitu zuten bidea kantu eta ber-tsoz.. Guztira 2.000 Arantza bildu omen ziren. Meza ostean janari boltsak banatu zizkieten bazkariarekin. Eguraldiak ere ederki lagundu zuen eta 5ak aldera bueltatu ziren Elgoibarrera.



Ibai Klubeko Egoitz Morak (eskuinean) eta Xabier González-ek (ezkerrean), urrezko eta zilarrezko domina irabazi zuten hurrenez hurren, urriaren 20an Pau-n izandako Nazioarteko Judo Txapelketan. Honez gain, Gipuzkoako Txapelketako lehen saioan urrezko domina lortu zuten Maria eta Esther Idiakezek, Aitor Mugerzak eta Xabier Gonzálezek.

■ Club Deportivo-aren zozketa

Elgoibarko Club Deportivoak bihar, hilak 26, Haundi eta Hernaniren arteko partiduan zehar egingo du iazko kuponazoari dagokion 250.000 pta.ren zozketa. Txartelak erosi zituztenak partidura ager daitezzen eskatu dute antolatzaileek.



Elgoibarko Izarrako talde eragilekoek Aubixan izan ziren iragan den asteburuan urtero bezala, Elkartearen jardunari buruzko gogoeta egiteko. 20 bat lagun izan ziren eta besteak beste, Elkartearen filosofia eta irizpide nagusien behin betiko finkatzea, bigarren etapako 6 urteotan ondo eta gaizki egindakoen azterketa eta aldatu beharrekoen gogoeta egin zuten.

■ Xake txapelketa

Zubi-Ondo xake elkarteak hilaren 26tik abenduaren 21era bitartera luzatuko den herriko xake txapelketa antolatu du. Larunbat arratsaldeko 4etan jokatu dira partidak Juan Mugerza 26an duten egoitzan. Suizar erako jokoak izango da eta zazpi txanda egongo dira. Infantil, gaztetxo eta senior kategoriak bereiztuko dira. Izena emateko 74 03 92ra deitu (Mikel Fidalgo) edo Juan Mugerza kaleko egoitzatik pasatu arratsaldeko 6etatik aurrera.

■ EKBren kanpaina

Urriaren 31n, osteguna, "Eman euskarari berea!" kanpainaren aurkezpena izango da Kultur Etxean. Kanpaina Euskal Kutturaren Batzarreak (EKB) prestatu du eta helburua euskarak eta berreuskalduntze prozesuak bizi duten egoera larria herri eta auzoetan zabaltzea da. Hitzaldia Gipuzkoako AEKko arduradunak, Juan Mari Larrartek emango du. Saioa arratsaldeko 7etan izango da. Elgoibarko euskaltzale guztiei dei egiten zaie hitzaldira joan daitezzen.

Babes ofizialeko 164 etxebizitza eraikiko dira

Patxi Ormazabal Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuak eta Guillermo Garate alkateak hitzarmen bat sinatu zuten atzo, Elgoibarren babes ofizialeko 160 etxebizitza eraikitzeko. Urruzuno 1 izenez bataiatu da proiektua eta aipatu etxeak Ikastola eta Artetxe bitartean eraikiko dira, trenbidearen gainetik.

Hitzarmena

Babes ofizialeko etxebizitzak egiten direnean normalean Udalak jartzen du terrenoa. Oraingo honetan, aldiz, Eusko Jaurlaritzak erosi ditu lurrak, beraz, Udalarri legez dagokion %10a Eusko Jaurlaritzak hartuko du ordainetan. Horrez gain, tasak %2an geratuko dira eta obren lizentzia %80a inguru ordainduko du Jaurlaritzak. Trukean, Eusko Jaurlaritzak plan partziala eta etxebizitzak egingo ditu. Baldintza horiekin sinatu dute hitzarmena Udalak eta Jaurlaritzak.

1998. urtean martxan

1998. urtean etxebizitzaren proiektua martxan jartzea da asmoa. Esan bezala, 164 etxebizitza egingo

dira guztira Urruzuno 1 proiektuan. Babes ofizialeko etxeak bi eratakoak izan daitezke: sozialak edo kontzertatuak. Sozialei dagokienean, eskaera egiten duen urteko 1,8-2,5 milioi bitarteko diru sarreak izan behar ditu eta kontzertatuen sartzeko dira hortik gora irabazten dutenak. Eskaeren arabera erabakiko da guztiak sozialak izango diren ala batzuk kontzertatuak. Lehenengo zein jendeak ematen duen izena ikusi nahi da, horien sarrerak nolakoak diren eta hortik aurrera zehaztuko da zein eratako etxeak izango diren.

8 milioitik aurrera

60-70 metro karratuko etxebizitzaren prezioa 8 milioi ingurukoa izango da etxebizitza sozialen



Ikastola ondoko lurretan eraikiko dira etxebizitza sozialak.

kasuan. 85 metro karratukoek, berriz, 11-12 milioiko prezioa izango dute. Kontzertatuen kasuan, etxebizitzaren prezioa pare bat milioi gehiago izango litzateke. Oraindik zehaztu gabe dago garajea eta ganbara izango duten ala ez.

Guillermo Garate alkateak herriar gazteei mezua bidali nahi die esanaz, etxebizitza bat erosteko asmatan daudenak, hemendik bi urtera izango dutela aukera babes ofizialeko etxeak izateko.



Institutuko, Ikastolako eta Herri Eskolako 20

irakasletik gora grafologia ikastaroa egiten ari dira Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatuta. 20 orduko iraupena izango du eta Iruñe Ibarra grafo-psikologo markinarra da irakaslea. Ikastaroaren helburua ikaslea hobeto ezagutzeko da idazkeraren bitartez.

■ Altzariak margotzeko tekniken ikastaroa

Eratu berri den Eskuz tailerrak egurrezko altzariak margotzeko teknikei buruzko ikastaroa antolatu du azaroaren 4an hasita. Astelehenetik ostegunera bitartean izango dira klaseak, egunero, arratsaldeko 3etatik 5etara bitartean edo 5etatik 7ak arte Pedro Muguruzako eskoletan duten egoitzan. Altzari txikiak landuko dira, berriak bai eta birziklatutakoak ere: aulkiak, mahaiak, mesanotxeak, bandejak, ispiluak, etab. Egurrezko altzari bat margotzeko teknika ezberdinak irakatsiko dituzte: krakelatua, marmorizatuak, tindaketa, egurrari zahar itxura ematea, etab. Ikastaroaren zenbatekoa 4.500 pta.koa da. Irakaslea Eskuz-eko Mertxe Solar izango da. Izena emateko 74 08 01era deitu (Mertxe) edo eskoletara joan.

Oihana Tarragual, Elena Zubiaurre eta Leire Iriondo:

"Mañukorta izango da gure manager-a!"

Hirukote famatua osatzen dute mendarotar hauek. Kazetari izateko bidean bata, Oihana. Nekazal injinerutza ikaslea bigarrena, Elena. Leire, berriz, Heziketa Bereziko ikasketak egiten ari da. Halere, badute neska hauek afizio

amankomunik: umorea eta txisteak. Izan ere, astelehenean ETBko Txiskola lehiaketan parte hartu eta irabazle geratu ziren. Momentuz, semifinaletara iritsi dira. Finalean nagusitzen badira, 2 milioi pta. jasoko dute.

- Zer egiten dute hiru neskak Txiskolan?

Elena: Neri kriston ilusua eitzen zian latan sartziak! Idatzi eta oin dala gitxi bigarren etaparako deitxu ziguten eta animatu ein ginan.

- Frogaren bat pasatu behar izan zenuten.

Oihana: Bai, kamara aurrian txiste bat kontau genduan bakoitzak.

- Neskez osatutako lehen taldea zarete. Abantailarik?

Oihana: Kike pozik zauan hiru neska jun ginalako baina kontautako txistiak onak izango ez bazian ez gendun irabaziko.


- Saltserak al zarete?

Elena: Ni etxian beti txistiak kontatzen ibiltzen naiz eta Leire kriston ona da jendia imitatzen, Carmen Sevilla, Chiquito De La Calzada... Oin lotsau eingo da baina egixa da.

- Lotsarik badaukazue ala?

Leire: Gutxi, lotsa gutxi bihar da. Gainera, kolorkiak tapau eitzen dizue hainbeste makillajen azpizan!

Elena: Nik uste baino lasaio egon ginan. Batez ere kamariari begiratzen. Publikuari begiratzean, berriz, barrez hasten ni-



"Nola esaten da japonieraz kumuneko zistema? Tiratakitxo, tiratakitxo!"

tzan.

- Nola prestatu duzue guztia?

Oihana: Lelengo programan oportretan geunden eta hirurak elkartu eta liburuak irakurtzen hasi ginan, Lazkao Txikin liburua... Bigarren programarako bakoitza toki baten geunden eta telefonoz ein bihar izan gendun dana. Guk asko asmatu ditxugu.

- Esaterako?

Leire: Nola esaten da txineraz kumuneko zisterna? Tiratakitxo, tirataki-

txo!

- Mañukortarengana ere joan zineten.

Elena: Bai, ondiok ez gera egon berakin baina telefonua eman zigun, berak lagunduko zigula... Manager bezela hartzekotan gaude!

- Aurrez al dakizkizue gaiak?

Oihana: Bai, pare bat aste lehen esaten dizue. Oin gainera txiste lehiaketa baino umore lehiaketa da eta antzerkixa ein bihar izaten dozu. Elenari tokau

jakon behi disfrazatzia eta horrekin umorezko zeozer eitxia.

- Kolore berdeak zortea ematen dizue.

Oihana: Bai, lelengo programan sagar taldea izan ginan eta bigarrenian kiwi taldea. Mendaroko jaixetako pañuelua ere berdia da, futbol taldea...

Elena: Eta gure txistiak ere berdiak dia.

Leire: Gu bezela!

- Erraza al da barrea sorraraztea?

Elena: Ez da erreza baina Kike denbora guztixan dago tontakerixak eitzen eta horrek asko eitzen dau. Eta publikuak ere, mendarokuak asko animau gintxuen!

- Laster hasiko zarete jirak egiten.

Oihana: Egixa da iazko irabazliei jendiak afarixetara juteko deitzen ziuela. Oin, ez dakigu gure kasua izango dan baina antzerki mundua asko gustatzen jaku.

- Zer egin behar duzue bi milioirekin?

Leire: Nik karneta etara!

Oihana: Hirurak bate-ra biaje bat seguru! Eta bestia aurreratu.

Elena: Zaila eitzen da irabaziko dogunik imajinatzia!

kiliBARRREN

Mendaroko gehigarria

Urriaren 25a

33. zkia.



1

Hilabete honetako argazkia Ana Jesus Etxeberriak lagatakoa da. Berak esan digunez, erretratua 1965. urtean atera zen, Kontzezio egunean eta Garagartzako plazan.

Hona hemen bertan agertzen diren dantzariak. Goietik eta ezkerretik hasita: Iturgain, Jose Luis Urbietta, Jose M. Garate, Jose M. Urbietta, Ignacio Garate, Gloria Iriondo, Belen Atxa, Arantza Diez eta ezezaguna.

Bigarren ilaran: M. Karmen Zulaika, ezezaguna,

Maritxu Ulazia, Gloria Larrañaga, M. Angeles Olazabal, Juan Jose Eizagirre, M. Asun Olazabal eta Jose Antonio Zabaleta.

Hirugarren ilaran: Txaro Eizagirre, Tere Larrañaga, Bene Larrañaga, Rita Zabala, Juanita Loiola, Kontxi Olazabal eta Ana M. Iriondo.

Lehenengo ilaran: Izaskun Jauregi, M. Angeles Salegi, Amaia Landa, Andone Bereziartua, Ana Jesus Etxeberria eta M. Jesus Ulazia.

Makurtuta: Agustin Lazarobaster "Torre", Agustin Berasaluze, Jose M. Zelaia "Bizkai" eta Gregorio Vives.

YOGA

Gorputzean barrena bidaiaria

Askotan entzun izan da Yoga hitza gure gizartean, liburu, aldizkari, telebista, irratian... Baina hain ezaguna den hitz honen atzean dagoena ez dute askok eta askok ezagutuko. Urrutira joan gabe, gure herrian ere badira yoga ikastaroak. Duela 10 urte "Mendaroko emekume taldeak" antolatu zituen ere oraindik ere diraute. Gai honen inguruan zerbait gehiago jakin asmoz Kultur Etxera gerturatu gara Yoga nola egiten duten ikusi eta Idoia Martikorena irakaslearekin egotera.

Klaseak ematen 15 urte daramatzan arren, duela 10 urte hasi zen Idoia Martikorena debarra Mendaroko eskolan. Zestuako eskolan buru buru esketak bi urtez eta ordu batean utzi yoga egiteari. Esan du: "Ez nola bere bizitza da, "sentitzea" da. Ni moti...

batzuen bidez gorputza lantzen da eta azkenik erlajazioa lortzen".

Charok eta Mariangelesek urte asko daramate yoga egiten eta beraiek esan digutenez, zenbat eta gehiago praktikatu, orduan eta gutxiago kostatzen zaizu erlaxatzea, "hasiera batean zaila egiten da baina denbora piskat bat daramazunean askoz hobeto hartzen duzu arnasa eta gutxiago nekatzen zara".

Klaseen egitura

Klase bakoitzak lau zati ditu: *arnasketa, eguzkiari agurra, posturak eta erlajazioa*. Idoiak komentatu digunez, posturak *Asana* bezala ezagutzen dira yogan. "Gehienak bizkarrezurrari lotuak daude, hor baitaude energiaren 7 puntuak. Hori landuz, giharreak lasaitu egiten ditugu eta energia piztu egiten da. Bizkarrezurra ondo badago, gorputz osoa dago ondo eta askoz hobeto arnasten da". *Eguzkiari agurra* deitzen den postura saio bakoitzaren aurrean egiten da gorputza berotzeko eta, ondoren, inonantzeko posturak egin ahal iza-


eskuak gora altxatuz. Postura honekin gorputz osoa lantzen da eta puntu finko baterantz begiratu arnasa oso ondo hartzen da.


"Erraza" jarrita egiten da. Bizka rrezurra zuzen ipini eta gorputza oso eroso sentitzen da eserita, zutik edo beste zein eratan zauden ere ez delarik jakiten. Gainera, ez du inolako esfortzurik eskatzen.

"Tortsioa"ri dagokionean, berriz, jarrita egiteko postura da. Ezkerreko hankak bestearen gainean jarri behar da eta eskuin eskua eta burua eskuin aldera begira. Bizkarrezurreko arazok konpontzeko edo leuntzeko erabiltzen da batez ere. Arnasa hartuz, buruarekin gorputza kontrolatu daiteke.

Postura edo Asanak

dauden arren hiru omen... rarik garrantzitsuenak: "Erraza" eta "bihurdura". "Erraza" oreka mantentzeko... bat zuzen...





Erlajazioa

Idoiaren ustez hau da zatirik garrantzitsuena. Halere, erlaxatuz ez da lorik hartu behar. Erlaxatuz meditazioa prestazea da helburua, "gauza ez da lo egitea. Gerta daiteke oso estresatua egon eta loak hartzea baina lortu behar dena erlaxatzea da".

Taldeko emakume guztiak bat datoz egun guztiak berdinak ez direla esatean eta batzuetan kontzentratzea askoz gehiago kostatzen zaiela. Angelitaren esanetan, "egunero ez zaude berdin. Hona etortzen naizenean gauza guz-



esetan arazo ezin dituzunak kendu. Konzentratu eta erlajazio puntu horretara ailegatzeko zeranian flota-tzen zaudela ematen du".

Charo ere bat dator Angelitik esandakoarekin, "askotan etorri, egin eta bazoaz, ia zer egin duzun konturatu gabe".

Idoiak yogaren garrantzia azpimarratu digu, "uste dut denok egin beharko genukeela yoga baina horrek ez du esan nahi guztiok prestatuak daudenik. Yoga ezagutu eta gero ez dago inor erabat uzten duenik. Gainera, jende guztiari risten zaio momentua yoga egiten hasteko".

Mari Angeles Azpiazu: "Yogak arnasa hartzen lagundu dit"

- **Nolatan yoga Mendaron?**

- Orain dala 10 urte erabaki gendun Emakume Taldian eta ni bestiak bezela ezer jakin gabe hasi nitzan. Gustau eta jarraitu ein dot.

- **Jende asko animatzen al da?**

- Hasieran ez eta gero gehienez 24 pertsonako taldea izan dugu. Gaur egun 6 lagun gaude arratsaldez eta gauean 9. Astean bi aldiz etortzen gara ordu t'erdiz eguneko.

- **Zertan lagundu dizu?**

- Batez ere, arnasa hartzen. Eguzkiari agurra konturatu ere egin gabe egiten dut arnasa ondo kontrolatuz. Gehien gustatzen zaizkidan posturak hankak gorantz altxatzekoak dira. Erlajazioa ere gozada bat da.

- **Zer sentitzen duzu?**

- Sentitu, berez, ezer ere ez, oso gustura nagoela eta ordu t'erdia hori niretzat bakarrik dela.

- **Jarraitzeko asmoa?**

- Beti, ahal dudanean behintzat eta kapazitatea dudanean.

3



1997.eko udal zergak

Urriaren 10ean izan zen plenoan 1997. urtean indarrean jarriko diren Udal zergak erabaki ziren. Hortaz, datorren urtean ur, estolderia, kontadore eta zabor bilketek ez dute igoyerarik izango. Azpiegitura hidraulikoen finantzaketarako zerga, berriz, honela geratuko da: etxebizitza bakoitzak 150 pta. ordaindu beharko ditu hiru hilabete behin eta 10 pta. kontsumitzen duten metro kubiko bakoitzeko. Etxebizitzak ez direnei, berriz, 300 pta. dagokie ordaintzea hiru hilabete behin eta 20 pta. kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko. Igoeraren arrazoiak, Gipuzkoako Azpiegitura Hidraulikoak finantzatzeko Udalak Gipuzkoako Ur Patzueragoari urtero 4 milioi pta. ordaindu beharra dio. Iazko dirusarrerak 600.000 pta. ingurukoak dira eta igoera defizita gutxitzeko da. Ur kontadoreei dago kienean, berriz, 13 mm-ko kontadoreek 7.209 pta. balioko dute eta 25 mm-koek 16.706 pta.

4

Arnoateko iturria konponduko du DEBEMENek

Mendaroko Arnoate iturria berreraikitze asmoa dute DEBEMENek eta Udalak. 1,5 milioiko aurrekontua du aipatu obrak eta kopuru horretatik %60a DEBEMENek jarriko du gainontzekoa Udalaren esku geratuz. Arnoate iturria izen bereko baserriaren ondoan dago. Baserria toki benetan bitxian

dago, izan ere, Elgoibar, Markina eta Mutriku mugatzen baititu. Duela 5 urte jaso zuen DEBEMENek eskaera iturria konpontzeko eta azaroan hasiko dira berreraikitze obrak, bi hilabetez luzatuko direnak.



Kirol ikastaroak emango ditu IBAI gimnasioak Mendaron

Elgoibarko Ibai Klubak antolatuta eta Mendaroko Udalak babestuta, kirol ikastaro ezberdinak izango dira. Esate baterako, judoa bai haur bai eta helduentzat ere. Lehenengontzat asteazken eta ostiraletan 5etatik 6etara eta helduentzat astearte eta ostegunetan arratsaldeko 7ak eta 8ak bitartean. Aerobic-a probatu nahi dutenek ere izango dute aukerarik. Astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 3etatik 4etara eta gaueko 8etatik 9etara. Manteniuko gimnasia astearte eta ostegunetan egongo da 6etatik 7etara eta 8etatik 9etara. Azkenik, gimnasia erritmikoa lehen urratsak eman nahi dutenek asteartetan izango dute ikasta-

roa arratsaldeko 6,45etik 8,15era eta ostiraletan 6etatik 7,30etara. Judoak 3.000 pta.ko kostua du hileko, aerobic eta mantenu gimnasia 2.500 eta gimnasia erritmikoa 2.200 pta.

Izena emateko Udaletxera joan behar da urriaren 31 baino lehen.



kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Begoña Muguruza

Zubiaurre mertzeriakoa



● **Jertse bat egiteko zein kolore aukeratu zenuke?**

► Udazkeneko koloreak gustatzen zaizkit; okrea, marroia, berdea...

● **Nori itxiko zenioke ahoa kremailera batez?**

► Ahoa itxi inori ere ez, baina burua askori zabalduko nieke.

● **Zure bizitzari partxe asko jarri al dizkiozu?** ► Oraindik ez.

● **Zer apainduko zenuke gantxilozko puntila batekin?**

► Ez zait gantxiloa gehiegi gustatzen.

● **Zein momentutan sentitzen zara katu bat hari mataza batekin bezain pozik?** ► Nire familiarekin nagoenean.

● **Jostun bat?** ► Nirea ez den arren, niri Valentino gustatzen zait.

● **Herriko zein arazok behar du jostura on bat?**

► Nik herria zikina ikusten dut, beraz, jostura bat baino gehiago garbitu on bat beharko luke Elgoibarrek.

● **Zer ez zenuke dirutan salduko?** ► Nortasuna.

● **Dendari ez bazina?** ► Lehen damaskinadora nintzen eta horretan jarraituko nukeela pentsatzen dut.

● **Neguan larruzko ala harizko eskularruak?** ► Lanazkoak.

● **Zein egoerak jartzen zaitu korse batek bezain estu?**

► Gaixotasunak.

● **Bukatu gabe utzi duzun bufanda?** ► Beti gelditzen da zerbait bidean, baina lehenago edo beranduago beti bukatzen dut hasitakoa.

● **Zein botoi sakatu beharko litzateke zorionaren atea zabaltzeko?**

► Pertsonen borondatea, borondaterik gabe ez dago ezer lortzerik.

● **Zenbat urterekin ikasi zenuen puntua egiten?**

► Nire alabak jaio zirenean; beraz, nagusia nintzen ordurako.

● **Bezeroa aholkatu ala konbentzitu?** ► Konbentzitu.

● **Noiz jartzen zara angora bezain leuna?**

► Hainbesterako ez naiz inoiz ere jartzen.

● **Ospatzen al duzu Santa Lucia?**

► Bai horixe, lagunekin afaltzera irtetzen naiz.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Txirrindularia izan nahi nuke

Bizikleta gainean nabil ni gustura aldapa guztietan behera eta gora hala pasako nuke nik beti denbora txirrindulari izan nahi nuke gerora (Berriz)

Bizikleta hartuta batetik bestera urtean zehar beti hainbeste karrera kilometro ugari gogorra aukera baina gustura eginez ekin ta aurrera (Berriz)

Txirrindulariak du nahikoa meritu bizikleta gainean behar du sufritu urtean froga asko egin ta gaingitu, baina alderdi onak kirolak baditu.

Indurain eta Olano munduko txapeldun bata orainaldia bestea etorkizun, kirolaz baliatuz heldu dira urrun, kirola ona da ta praktika dezagun.



IBAN HERRERO

I. urteurrena

1995eko azaroaren 25ean, 61 urte zituela hil zen **JOAKIN ORMAZABAL ELGEA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak. Era berean, jakinarazi nahi du urtemeza izango dela datorren larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 7etan San Bartolome parrokiaren.



Isabel Azpeleta da bake epaile berria

Joan den ostiralean, hilak 11, zin egin zion Isa Azpeletak Bake epaile karguari. Orain dela zenbait hilabete egin zen deialdi publikoa eta bertara aurkeztu zirenen artean EGA zutenekin zozketa egin eta gero Isa Azpeleta 27 urteko gazte elgoibartarra suertatu zen irabazle. Bake



epailea berez kargu simbolikoa da, profesionala baino. Epaileen mailaketan behe-ren dagoena da. Bere esku dago, besteak beste, erregistro zibila. Hau da, jaiotza eta heriotza aktak

sinatu behar ditu, berak ezkontzen ditu bikoteak zibilez eta abar. Horrez gain, epaiketa txikiak ere bidera ditzake, bai penalak (faltak) bai eta zibilak ere (8.000 pta. arte), nahiz eta Elgoibarren horrelakorik apenas egiten den. Zuzenean Eibar-ko Epaitegira bidaltzen dira kasuak eta han hartzen dira erabakirik gehienak. Gerta daiteke, esaterako, nolabaiteko istripu txikiren bat izatea eta bi parteak epaiketarik egin nahi ez izatea. Hortaz, bake epailearen aurrean akordio batera iristen badira, bestelako epaiketarik egin beharrik ez dago. Isa Azpeleta datozen lau urteetan izango da Elgoibarko bake epailea. Funtzio honegatik 30.000 pta jasotzen ditu, gutxigorabehera hilero.

Greziarrak Elgoibarren

Datorren astelehenean, hilak 28, Greziako Pella eskualdeko talde bat izango da Elgoibarren. Talde honekin batera Deba Beheak Europa mailako Now programa barruan emakumeak lan munduan sartzerari buruzko gaia darama aurrera. Eguerdiko ordu batean Gillermo Garatek harre-ara egingo die Udaletxean. Ekain proiektua aurkeztuko zaie eta industriaren gain-behera jasan duen Elgoibar bezalako herri batek hirugarren sektorea landu eta turismo gune nola bihur daitekeen ere izango dute mintzagai. Bazkariaren ostean, IMH, Gestio Eskola eta Industria Museoa bisitatuko dute.

Ongizaterako laguntzak sinatu dituzte Aldundiak eta Udalak

Elgoibarren 65 urtetik gorako 1909 pertsona daude, biztanleria-
ren %17a. Hauetatik %13a bakarririk bizi dira. Datuok Gillermo Garate alkateak eman zituen joan den astelehenean Aldundiko M. Jesus Aranburu Oinarrizko Gizarte Prestakuntzen zuzendaria eta Luis Maria Bandres Gizartekintzako alduak egin zuten bisitaldian zehar. Aldundiko agintariak Elgoibarren izan ziren gure herrikoerresidentzia bisitatzen.

Elgoibarren 11.000 biztanle izanik, San Lazaro egoitzean 44 lagunentzako lekua baino ez dagoela adierazi zien Garatek Aldundiko gizarte saileko arduradunei. "Plazentzian edo Mutrikun, esaterako, erresidentzietako leku kopurua kasik berdina da, baina herri hauetan 5.000 pertsona bizi dira, hortaz, Elgoibarren, 44 plazarentzat pertsona kopuru bikoitza dago". Honez gain, 13 lagun daude erresidentziarako plaza baten zain. Egoera honen aurrean laguntza ekonomikoa eta zuzendaritza eta europar laguntzen gaitan kolaborazioa eskatu zien Aldundiko ordezkariak.

Bandres diputatuak Europako laguntzak izoztuak daudela adierazi zuen Ingalaterraren boikotaga-

tik. Honez gain, oraintsu onartu den "Zerbitzu Sozialen Legea"ren arabera, Udal ezberdinen eta Aldundiaren arteko kompetentzien berplanteamendua egin beharra dagoela aipatu zuen, "hauen finantzamendua nola geratuko den izango delarik gairik larriena".

Laister batean Udalak zenbait lokal munizipal ezinduak eta minusbalituak atenditzeko egokitu dituzte. Honez gain, garbiketarako enpresa profesional bat sortzeko asmoa du, diru sarrera txikiak dituztenei eta emergentzia sozialeko programaren barruan daudenei garbiketa zerbitzua eskaintzeko.

Eguneko zentroa

Udalaren egitasmorik garrantzitsuenak Eguneko Zentroa sortzea da. Gaur egun erresidentzietan dauden pertsona asko eta asko bere kabuz moldatzeko gai diren pertsonak direla azaldu zuen Bandres-ek. "Pertsona horiek beren etxetan bizi behar dute, psikologikoki eta ekonomikoki positiboagoa baita. Badira horientzako etxeko laguntza eta tele-alarma bezalako programak eta orain, gure erronka pertsona hauentzako eguneko zentroak sortzea izango da. Erresidentzietan dauden pertsona ezinduentzako lekuak izan behar dute".



Belen Elorza zinegotzia, Aldundiko M. J. Aranburu eta Bandres eta alkatea.


Aurretxea (I)

- Altzolako zubiaren aurrean eta 634 errepedearen bazterrean aurkitzen da bi harmarri dituen jaurretxea.
- Oinplano ia karratua du eta teilatua lau isurkitara. Eraikina harlangaitzez egin da eskantzuak, leiho eta ateetako baoguneak izan ezik, hauek harlanduzkoak baitira. Azken hauek fatxada nagusian bertikalki lotuak daude.
- Antzinan hiru solairutako etxea zen, behekoaz gain beste bi oin zituelarik, fatxada nagusian antzeman daitekeenez. Baina, harrez gero, eta alboetako fatxadetako baoguneen banaketari begiratzen badiogu, laugarren solairu bat aterata dago. Beraz, argi ikusten da barrutik erabat aldatu eta premia berriei egokitu aurkitzen dela, jauretzea izan zeneko banaketa galduta duela.
- Fatxada nagusia ipar aldera begira dago eta jatorrizko elementurik gehienak mantentzen dituen da, nahiz eta hemen ere bi leiho eraiki diren besteen ordena errespetatu gabe.
- Beheko solairuan ezkaratze zabal batean sartzeko ate dinteldu haundi bat dago eta aldamentetan leiho bana.
- Lehenengo solairuan burdinezko hiru balkoi daude barandaz itxiak. Goiko solairuan, berriz, erdian balkoia dago eta alboetan leiho bana.
- Fatxada nagusian bi harmarri daude. Haundiena goian, eskuin

aldean, eskantzuan kokatua dago. Bestea txikia da eta aurrekoaren altueran aurkitzen da baina honako hau ezkerrean. Harri gainean Balluibar idatzia ikus daiteke.

- Ekialdeko fatxada oso aldatua dago. Beheko solairuan jatorrizko bi leiho luze itsutu aurkitzen dira baina harrez gero, beste bi leiho berri ireki izan dira.
- Lehenengo solairuan bost leiho ikus daitezke, altuera desberdinean kokatuak eta eraikina baino berriagoak direnak. Bigarren solairuan antzinako lau leiho (eskuineko balkoia izan zen eta ezker aldekoa erdi puntuko arku txiki bat da) kontserbatzen dira eta beste bi berri ireki dira.
- Goiko solairuko lau leiho zaharagoak (eskuinekoa balkoia izan zen eta ezkerrekoa txikiagoa da eta txaranbelduna) eta beste bi berriagoak dira.

PELLO ARRIETA



Juana Perez Raya

(1904-1990)



- 1904ko irailaren 7an jaio zen Jaeneko Villacarrillon.
- Lau ahizparen artetik gazteena zen. Gaztetako ikasketak herriko eskolan egin zituen.
- Gazte sasoi etxekolanak eginez pasatu zuen, familian laguntzen.
- Juan Marín de La Torrerekin ezkondu eta 4 seme-alaba eduki zituzten.
- 1960an etorri zen familia osoa Elgoibarrera, gogoz etorri ere.
- Bere seme-alabak ez ezik, herriko beste bi ume ere hazi zituen emakume honek. Horretan eta etxekolanak egiten ematen zuen denbora.
- Emakume ezaguna izan zen eta sinesmen handikoa.
- Asko gustatzen zitzaion zinea bai eta kartetan seme-alaba eta lagun giroan jokatzea ere.
- Madrilen ezkondu zegoen alaba bat bisitatzeraz joan zenean, bertan hil zen 86 urterekin, 1990ko ekainaren 28an.

JUANITO GOROSTIZA

OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ (943) 20 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

UDA
BERRI
ELGOIBAR

XABIER
ILEAPAINDEGIA
*Eskatu
eguna eta ordua*
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

EMAITZAK

Futbola

C.D. Elgoibar 1 - Lizardi 2 (Neskak)
 C.D. Elgoibar 5 - S. Patricio 1 (Kadeteak)
 Eibartarrak 0 - Pedrusko 2 (2. erreg.)
 C.D. Elgoibar 2 - Añorga 3 (Infantilak)
 Lagun Onak 0 - Haundi 2
 Euskaldunak 1 - C.D. Elgoibar 2 (Jub.)
 Urki B 2 - C.D. Elgoibar 2 (2. jub.)

Eskubaloia

Ordizia 11 - Elgoibar E.T. 38 (Kad. mutilak)
 Bergara 11 - Elgoibar E.T. 18 (Jub. neskak)
 Elgoibar E.T. 14 - Aloña Mendi 20 (Jub. mut.)
 Elgoibar E.T. 28 - Legazpi 22 (Seniorrak)

Areto Futbola

Elgoibar 3 - Gure Txokoa 2 (1. maila)
 Elgoibar 2 - Moulinex 3 (Autonomikoa)

Pilota

Irureta/Beobide 5 (Azpeitia) -
 Azpiazu/Bergara 18 (Elgoibar)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 26

10,00 S.D. Eibar - Lehengokoak (Kad.)
 12,00 C.D. Elgoibar - Lagun Onak (2. jub.)
 17,00 Haundi - Hernani
 18,45 Eibartarrak - Antzuola (2. jub.)

Igandea, 27

09,30 Gazteak - Soraluze (2. jubenilak)
 11,15 Gazteak - Bergara (2. erreg.)
 13,00 Beti Sutan - Zarautz (2. erreg.)
 14,45 Eibartarrak - Bilbo (Neskak)
 17,00 Elgoibar - Aitzgorri (Infantilak)
 18,45 Eibar - Beti Ona (Kadeteak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 26

16,00 Elgoibar E.T. - Zarautz (Jub. neskak)
 17,30 Elgoibar E.T. - Hernani (Kad. mutilak)
 19,00 Elgoibar E.T. - Arrasate (Jub. mutilak)

Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 22,00etan

Gandiaga/Andonegi (Eibar) -
 Leon/Balzola (Elgoibar)
 Mujika/Zuazubiskar (Arrasate) -
 Ansola/Alzibar (Elgoibar)



Egoitz Mora:

"Datorren urtian gerriko beltza aterako dot"

■ **Urrezko domina irabazi duzu nazioarteko txapelketa batean, zein?** - Urriaren 20an Frantzia izan zan, Pau inguruan. Frantziako 24 talde zaozen eta sei espainol. Nik frantsesen kontra borrokatu naban, bat ezik, Santanderreko bat.


■ **Nola ikusi zenuen zure burua?** - Uste nabana baino hobeto, ze tenporada hasiera izan da eta flojuaua hasiko nitzala uste naban.

■ **Denboraldi ona egiteko perspektibak, beraz.** - Ez derrigorrez, ze txapelketa honetan danak ginan 82an eta 83an jaiotakuak. Baina aurten 17 urtez azpiko kategorian hasi naiz eta nere edadekuak eta ni baino bi urte nausixauak daude.

■ **Bi urteko aldea igarri egiten al da?** - Bai. Pertsona altua eta pisutsua izatia askotan ez da inportantia. Hasieran igual beldur piska bat ematen dau baina gero tatami gainian aldatu eitzen da.

■ **Zertan aldatzen da?** - Zuk ikusi eitzen dozu kontrarixua zer dixen eitxera eta berak ezer ein baino lehen zuk botatzen dozu. Edo zain eoten zera eta gero zuk erreakzionatzen dozu. Taktikia prestatzia da gauzia.

■ **Erraz irabazi zenuen?** - Errez ez baina, lenengan bota nitxun, puntuazio maximuakin.



■ **Zein gerriko duzu?** - Marroia. Nere edaderako ondo dao baina lagun asko dauzkat gerriko marroia daukatena.

■ **Zenbat urterekin hasi zinen?** - Hirukin. Bastante goiz, aitxa judoka izanez normala da.

■ **Gerriko beltza noiz?** - Datorren urtian ahal bada, 15 urtekin.

■ Zaila ikusten duzu lortzea?

- Bai, asko ikasi bihar da, teoria asko dao. Eta examina perfektu urten bihar jatzu gerrikua ateratzeko.

■ **Aitxaren mailara heltzerik bai?** - Ondikan ez dakitx. Momentuz aurrera segitxuko dot, baina irakaslia izatiana ez jata gustatzen.

■ Eskubaloia ere egiten duzu.

- Aurten hasi naiz kadetietan. Judua eta eskubaloia, bixak gustatzen jataz.

■ **Zer moduzko entrenatzailea da aita?** - Nahiko ona. Ni ondo portau bihar izaten naiz, ze entrenadorian semiak ejenplua eman bihar dau.

■ **Aitari irabazi diozu sekula?** - Keba. Serixo ez dou sekula borrokatu eta ezin diot irabazi; nere doblia da. Egunen batian irabaziko diot.

- Adina: 14
- Beste arte martzial bat: Muai-Tai
- Saskibaloia partidu bat ala judo borrokaldi bat? Judo borrokaldia

Kidea

ASESORIA ETA CONSULTING

- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK

Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR



Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
 SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
 GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

Behobia-Donostia egiteko hainbat gomendio

Azken urteotan Behobia-Donostia marathoi erdia korritzen duen elgoibartar kopuruak gorantz egin du. Iaz 40tik gora izan ziren. Hori ikusita, Udal Kirol Patronatuko Ramon Mujikarengana jo dugu lasterketa hori ganoraz egiteko jarraitu beharreko aholkuen berri eman diezagun. Hala ere, azaroaren 10era bitartean bakoitzak bere entrenamendu programa jarraitzea gomendatzen da. Orri honetan baliagarri izan daitezkeen hainbat aholku aurki daitezke.

Autobusa lasterketarako

Aurtengo Behobia-Donostian autoa aparkatzeko egongo diren arazoak ikusita, Udal Kirol Patro-

natuak autobusa antolatu du. 55 lagunentzako lekua egongo da. Izena ematerakoan txartelaren ordainketa egin beharko da. Prezioa 500 pta.koa da abonatuentzat eta


1.000 pta.koa gainontzekoentzat. Ikusleentzat ere autobusean joateko aukera izango da baldin eta lekua badago. Izena emateko 74 44 15ra deitu.

Entrenamendua

Astean hiru entrenamendu saio egitea komeni da gutxienez.

1. zatia: beroketa edo prestaketa

- Luzamendu ariketak egin.



- Luzamenduekin batera beste ariketa hauek egin: jauzi txikiak eman, belau-nak gora eraman, orpoak ipurdira eraman, besoek rotazioa eta besoak zabaldu eta itxi.

- Iraupena: 10- 15 minutu
- Beheko aldetik hasi eta goiko zatietako muskuloak luzatuz amaitu.
- Aholkuak: ariketa bakoitza 20 segundoz egin. 10 segundoz mantendu luzaketaren intentsitate maximoa. Erreboterik ez egin. Arnasa erritmo normalean hartu.

2. zatia: entrenamendua (garrantzitsuena)


- Hemen erresistentzia aerobikoa

lantzen da batez ere.

- Abdominalak egitea komeni da han-ketako lesioak eta sobrekargak ekiditeko. Kontuan hartu behar da berna eta hankek egiten dutela esfortzurik handiena, hortaz, gerritik gorako giharreak sendo egotea komeni da.

- Abdominalak: goikoak eta behekoak landu.

- Lunbarrak: etzanda kontrako hanka eta besoa jaso.



3- zatia: lasaitze egoerara bueltatzea

Gorputza bere onera ekartzea da helburua.

- Intentsitate baxuko ariketak egin (beroketa fasekoak errepikatu eta arnasketa ariketak egin).

- Luzamenduak kontuz egin. Deshidratazio eta nekeगतik lesioak errazago egin daitezke eta.

- Kontuz ez hoztearekin.

- Iraupena: 10-15 minutu

Zenbait aholku

- Azterketa medikoa egin, 30 urteik gorakoek batez ere.
- Ohitura txarrak baztertu: alkoholik eta tabakorik ez.
- Erropa erosoak eta kotoizkoak. Gomendioa: lokarri eta goma esturik ez.
- Zenbat erropa: ahalik eta gutxien baina ez hozteko adina.
- Zapatilak: amoriguazio onekoak.
- Lasterketa baino bi egun lehenago atsedena hartu. Bezperan 40-50'ko saioa egin (luzamenduak, abdominalak eta korrika arina).

Zer jan eta zer edan

JANARIA:

- Azken jatordutik 3 ordu pasatu behar dira kirola egin aurretik
- Pastak, arroza, lekariak, patata egosiak, jamon york eta berdurak jan.
- Aurreko eguneko afaria: hidratoetan aberatsa. Adibidez, entsalada, spagethiak tomatearekin, okela eta jamon de york, fruta edo yogur naturala eztiarekin.
- Lasterketa eguneko gosaria: kafesnea, kafea edo Cola Cao-a zerealekin, ezti goilarakda bat, tostada pare bat mantekilarekin, naranja zukua eta fruta. Pare bat ogi errota jan daitezke. Oso inportantea hiru ordu lehenago gosaltzea. (Aurreko egunetan berdin gosaltzea).
- Lasterketa eguneko bazkaria: lasterketa amaitu eta bi ordu beranduago jan. Bazkari arina: zopa, tortila frantsesa jamon de york-ekin eta fruta edo yogurra.
- Afaria: bazkaria baino astunagoa izan daiteke.

EDARIA:

- Entrenamendu egunetan ur ugari edan. (3 bat litro)
- Lasterketan zehar (3 edo 5 km bakoitzeko) ur asko edan eta glukosa pastila erdi edo laurden bat hartu. Isostar eta antzerakoak edan daitezke.
- Lasterketaren ondoren azukredun edari bat eta ur asko edan (ez oso hotza).



Osasunerako Heziketa izena duen programaren barruan eskaintzen diren zine pelikulen lehen emanaldia ostegunean izan zen. Ertainetako ikasleei eta hauen gurasoei zuzenduriko programa da. Udaleko Drogomenpekotasunen Zerbitzuak darama gestioa eta Kati Pons teknikariak azaldu duenez, "herri guztiekin alderatuz, Elgoibarko gurasoen artean du programa honek harrerarik onena".

Programa honen funtsa zera da: urtean bost pelikula ematen dira. Ertainetako ikasleek goiz batean pelikula bat ikusten dute eta egun berean, arratsaldean, hauen gurasoek filme bera ikusten dute. Ikasleek etika eta erlijio klasean pelikulan planteiatzen diren hainbat kuestio eztabaidatzen eta lantzen dituzte fitxa didaktiko batzuen bidez. Katiren esanetan, "zinearen bidez hainbat jarrera lantzen dira, osasuna, autoestima, errespetua etab."

100 guraso saio bakoitzeko

Gurasoen artean programa honek harrera ezin hobea izan zuen iaz. "Iaz bost pelikuletatik bitan eztabaida egiten zen espezialista batekin baina aurten pelikula bakoitzaren ostean zien-foruma egingo da. Saio bakoitzeko bataz beste 100 bat guraso joan ziren.

ZINEA ESKOLAN: **Osasunerako Heziketa** programa

Inkesta bat egin genuen gurasoen artean programaren harrera neurtzeko eta denek oso positiboa dela adierazi zuten".

Zinea eta osasuna programa honetan parte hartuko dute aurten Institutuko 2. BBB, 2 REM eta LOGSEko 1. mailakoek, Ikastolako 2. BBBkoek eta Garantia Sozialeko moduluetakoeak. Guztira 545 ikaslek. Ikastetxe guztiak dute parte hartzeko aukera ertainetako ikasle-en programa honetan bai eta DBH eta 1. BBB edo REMeko ikasleei zuzendutako "Baloreetan Oinarritutako Hezkuntza" programan ere. Azken honetan Institutuko DBHko 1. eta 2. mailako eta Pilarreko DBHkoek hartuko dute parte. 309 ikasle denera.

Eusko Jauraritzak diruz laguntzen duen programa da eta Udala arduratzen da gestioaz. Orain arte Udalak 500.000 bat pta. ordaintzen zituen baina aurten ikasle bakoitzak 650 pta. ordaindu beharko ditu. Izan ere, DBHkoen egitasmoak ez du Udalaren laguntzarik, horregatik, ikastetxeetako arduradunek ikasle guztiak bost pelikulak ikusteagatik zertxobait ordaintzea erabaki zuten "DBHkoek bakarrik ordaindu beharrean denek zertxobait ordaintzea hobea zela ikusi genuen, nahiz eta subentzioaren

zain gauden".



Iciar Bollain-en "Hola estás sola?" filmea izan da programako lehena.



Pelikula ikusi ondoren, etika eta erlijio klaseetan eztabaida egiten da.

ONGARRI

“Galazko” aurkezpena egin zioten Ongarrikoek atzo, osteguna, hasi berri den zine klubaren aro berriari. Diego Galán, Donostiako Zinemaldiko zuzendariaren presentziak ikutu berezia eman zion “El odio” filmearen emanaldiari. “Oraingoan pertsonaia ezagun bat etorri den arren, ez dezala pentsa jendeak hurrengoan Almodovar ekarriko dugunik, ezta gutxiagorik ere”. Ongarrikoek esana da.

Almodovar ez du, ez, Herriko Antzokian ikusiko baina bai agian hark egindako pelikularen bat. Anitza, estilo ezberdinak jorratuko dituen zine kluba prestatu digute Ongarrikoek. Ikusle goaren gustukoa izatea espero dute, denetik egongo baita.

Guztientzako zinea

Zine klubaren irudia gutxiengo batentzako zinearekin lotuta dago. Iñaki Agirreren esanetan, “Ongarrik bide horretatik atera nahi du, hiru klasetako emanaldia k bereiztuz.

Ostegun soilak

Hileko bi ostegunetan emango diren pelikulak “zine klubeko” tankerakoak izango dira. Zine-estilo ezberdinak ikusi ahal izango dira: lurralde urrunetakoak, zine independentea, tendentzia zinematografiko berriak...

Ekitaldi bereziak

Hileko bi ostegun eta ostiral batzuetan, pelikularekin batera beste ikuskitun bat prestatuko da, emanaldiari ikutu berezi bat emateko. “Kolektiboen aurkezpenak, pertsonaiaren baten presentzia...”

Pelikula komertzialagoak

Eman gabe dauden filme komertzialagoak ere ostegun eta ostiraletan proiektatuko dituzte.

Aurrekontua

Bi milioi inguruko aurrekontua dauka. Udalak 600.000 pta. eman ditu eta beste guztia sarrerren bidez finantzatuko dute. Horregatik ikusle goak ondo erantzutea espero dute. Sarrera: 400 pta.

Termometroa

20-25 bat pelikula emango dira urtean. Aurtengo esperientzia jendearen harrera neurtzeko izango da. Hortik abiatuko dira datozen urteetako zine kluba antolatze-ko.

HISTORIA

Zinearen inguruan sortutako kluba

21 urte atzera jo beharko genuke lehen zine klubaren arrastoa topatzeko. Ongarri Kultur Taldea zegoen orduan, bazkide mordo batek osatua. “Capitol” zaharrean izaten ziren emanaldiak. Pelikula sozialak ia denak, brasildarrak, europar ekialdekoak, hegoamerikarrak,... garai hartako errealitatearen ispilu zirenak. Iñaki Agirrek, gaur egungo Ongarri Zine Klubeko kideak errepre- sioaren bueltan sortutako ekimen gisa gogoratzen du zina kluba. “Zinea aitzaki hartuta, gure gauzei buruz hitz egiteko aukera ematen zigun foroa zen”.

Etenak

Filme “gogorak” ziren. Hala gogoratzen du Iñaki Agirrek. Zine klub hark ez zuen jendea erakartzen. 21 urtez mantendu zen hala nola. Askok alde egin zuten azkenean Iñaki Agirre geratu zen taldean. Beranduago Iñaki eta Arrate San Martin anai-arrebak eta Andres Odriozola batu ziren taldera. Gaurko Ongarri sortu zen. 1985ean zine klubari ekin zioten eta lau urte iraun zituen. “Capitol”aren insonorizazio arazoak zirela eta, bertan behera utzi behar izan zuten. Bitartean, aire libreko zinea sortu zen. Dena den, zine klubaren ideari leial, aurtan ekin diote berriz.



Jon Aurrekoetxea

“Jakitzia gustatzen jata eta horretarako ikasi ein bihar”

24 urte ditu. Gogoan dauka nola *Tente* zuen umetan jolasik gustukoena. Gauzak sortzen, eraikitzen disfrutatzen zuen. Eta urtero zain egoten zen ea Gabonetan Olentzerok zer-nolako *Tente* kaxa puska ekarriko zion. Horregatik, beharbada, institutua amaitu zuenean *Injenerutza* ikastea erabaki zuen. Eta *Arrasatera* joan zen. Ikasketa teknikoak amaitu zituenen beka bat eskuratu eta *Suizara* alde egin zuen goi mailako injenerutza egiteko asmoz. Aste honetan, berriz, *Madrilera* joan da. Bertan, sei hilabetez karrera amaitzeko behar duen proiektua egingo du.



- Zalantza izan zenuen: injenerutza edo filosofia. - Bai. Kriston txokia eman dezake baina bixetan bihar da abstrakzio maila haundixa. Azkenian alde praktikuak irabazi zaban. Lan munduan zerk euki zezakeen aukera gehixo.

- Arrasatetik Suizara joan zinen. - Bai. Arrasaten beka batzuk daude “Goier” izenekoak. Hirugarren mailan, proiektura pasau aurretik eskaria eitzen dozu eta aukeraketa bat eitzen debe. Elgoibartik hiru jun ginan: Xabier Zearzolo eta ni Lausanne-ra, Suizara, eta Aitzol Arriola Frantziara.

- Frantsesa ba al zenekien? - Ez, hitz bat bera ere ez. Bekia eman zienian intensibo baten apantau nitzan. Halere, behin Suizara ailegautakuan segitxuan ohitzen zera ze ez da hain hizkuntza zaila. Eta han klasian frantsesez zabiz, lagunekin ere bai, azterketak oralak dia...

- Zein espezialitate hartu duzu? - Materialeen zientzia. Hemen ez dao eta kanpuan ere apenas. Espezialidade berrixa da. Fisika, kimika

eta injenerutza mekanikuan arteko nahasketa bat da. Materialen, egurra, altzairua, plastikuan... fabrikaziua zela eitzen dan, esturkturia zelakua dan, propiedadiak...

- Zaila al da?

- Motibazio haundixa bihar da baina han oso mentalizau-

ta zaude. Nik garbi nakan ikastera jun nitzala. Klasiak egunian 6-8 ordukuak dia eta aparte nere kontura egunero 2 ordu eta astebukaerak ere errekuuperatzeko.

- Azkarra ala langilea izan behar?

- Bietatik bihar da baina nik uste dot konstantia izan eta motibaziua eukitzia inportantiauak diala. Azken finian, lanakin lortu leike. Gauza hauek mitifikauta daude lanakin lortu leike.

- Gustatzen zaizu ikastea? - Jakitzia gustatzen jata eta horretarako ikasi ein bihar da.

- Madrilera

orain. - Proiektua eitxera. Plastikuei buruz ein bihar dot proiektua, zergatik dian gogorak edo bigunak, tenperatura... Materialeen Institutuan ein bihar dot, Madrideko ikerketa zen-truan.

- Zer eman dizu

Suizako esperientziak? - Lau abantaila haundi. Lelengua bakarrik egoten. Bigarrena, kultura, jende, hizkuntza, janari berrixetara adaptatzen. Hirugarrena, hemengua, zure herrixa, lagunak, familixia estimatzen eta azkenik, eitzen ditzuzun ikasketak.

- Pribilejiatua sentitzen al zara?

- Alde batetik bai, ze nere etxian ez dia dirudunak eta bekei esker lortu dot holako esperientzia bat bizitzia. Gustukua ikasteko aukeria izan dot.

- Non egon nahi zenuke bost urte barru? - Etengabian ikasten zauden zeozertan ibili nahi nuke lanian, ikerketa arloan edo.

- Asmakizunik onena? - Inprenta. Horri esker ezagupenak jende askorengana zabaltzea posible izan da. Ahoz ezinezkoa litzateke.

- Eta filosofia noizko, Jon? - Oin etara ditzut liburu batzuk eta nere kontura irakurtzen hasiko naiz.

- Noren filosofia da zuretzat eredu? - Neretzat historian egon dan pertsonaiarik haundixena Ghandi izan da. Dudarik gabe.



Salerosketak

- ❖ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohel salgai. Prezio eta egoera onean. **☎ 74 19 23 / 74 21 82**
- ❖ OHE BAT eta 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. **☎ 74 24 57**
- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. **☎ 74 17 20**
- ❖ SOINU BAJOA saltzen dut. 96koa. Piano teklatura dauka. **☎ 74 03 01**
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. **☎ 74 05 14/74 15 16**
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAR txarkurkume saltzen ditut. **☎ 74 41 45 Javi**
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. **☎ 75 51 75 Javi**
- ❖ LIBURU hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed-Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolekzioa). **☎ 74 07 74 Igor** (gauze deitu)
- ❖ "La Unión" elkarteko bazkide akzioa salgai. **☎ 74 05 05**
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut. SS-AS. Oso egoera onean. **☎ 17 44 33**
- ❖ BIBOLIN BAT saltzen dut oso egoera onean. **☎ 74 26 35 Manuela**
- ❖ REM/IEEko lehen mailako LIBURUAK erosiko nituzke. **☎ 74 12 91**
- ❖ BX-RE AUTOA saltzen dut. Egoera onean. **☎ 74 08 85**
- ❖ LOKAL BAT saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. **☎ 74 18 94/27 78 08 Angel**
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. TALBOT SOLARA. Egoera eta prezio onean. **☎ 74 30 02** (gauze)
- ❖ ILARAKO MONOPATINAK saltzen ditut, lau erroberakoak. **☎ 74 20 95 Iban**
- ❖ AUTO TELEGIDATUA saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. **☎ 74 22 75**
- ❖ TRABESIAKO ESKIAK saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: arnesak, sokak, katu hankak. **☎ 74 40 62 Agustín**

Lana

- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 04 75**
- ❖ Konfidantzako familia batek au-pair bat behar du Northamptonen (Ingalaterra) irailetik aurrera. **☎ 74 15 73**
- ❖ 17 urteko neskek pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauzez. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. **☎ 74 36 38**
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. **☎ 75 62 18**
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak daukat eta lan egingo nuke. **☎ 74 34 68**
- ❖ Neska euskaldunak urte guztian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut. **☎ 75 61 79**

Partikularrak

- ❖ Ingeleseko irakasle bat behar dut goizez klaseak emateko. Oinarrizko maila. **☎ 74 21 84**
- ❖ Marrazketa industrial eta die-driko partikularrak ematen ditut. **☎ 74 43 98 Iñaki**

Etxebizitzak

- ❖ Pisua salgai Erretxindi kalean. 4 gela, ganbara eta gas natural berogailua ditu. **☎ 74 44 66 Arantxa**
- ❖ Deuston pisua betetzeko neska behar da. **☎ 74 33 38 Vanesa**
- ❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. **☎ 909 22 36 27 Leire**
- ❖ Pisua salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldea, komun bat eta 2 ganbara. **☎ 74 15 90**
- ❖ Beste batzuekin KONPARTITZEKO etxe bila nabil. **☎ 74 09 44**
- ❖ Pisua SALGAI SANTA ANA kalean. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 komun eta ganbara. **☎ 86 12 47 - 74 35 86**
- ❖ Pisu bat ALOKATU nahi dut Elgoibarren. **☎ 45 35 59**
- ❖ Etxebizitza SALTZEN DA SAN BARTOLOME kalean. Sukaldea, bi komun, bi logela eta egongela-logela ditu. Jantzita eta berritua. **☎ 74 04 99**

❖ Beste batzuekin bizi izateko PISU BILA nabil Mendaron edo Elgoibarren. **☎ 61 96 60 Ana**

❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan. **☎ 74 04 75**

Garajeak

- ❖ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. **☎ 74 27 73**
- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. **☎ 74 01 13**
- ❖ Garaje bat saltzen dut Arregitorre Iean. **☎ 74 30 81**
- ❖ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. **☎ 74 12 53 (Pilar)**
- ❖ Garage itxi bat saltzen dut Santa Anan. **☎ 74 21 21**

Agurrak

- ❖ Zorionak Anahí De la Cruz-i hilaren 28an urteak egingo dituelako. Bere ahizpa Nerea eta familia guztiaren partez.
- ❖ Jokin Salegi. Zorionak zure 17. urtebetzean. Musu handi bat urriaren 25erako. Zure lagun Idu-re eta Miren.
- ❖ Zorionak Miren-i, urriaren 25ean 17 urte betetzen dituelako. E.M. eta M.I.ren partez.
- ❖ Urriaren 21ean 11 urte bete zituen Maite Elizbururi ikastolako 6. mailako adiskideen partez zorionak.
- ❖ Zorionak Olatz González-i 12 urte egin zituelako hilaren 23an. Lagunen partez.
- ❖ Zorionak Olatz González-i bere mailako guztien partez.
- ❖ Epa Nerea! Maite eta Aitor gara. Bihar, hilak 26, 13 urte beteko dituzenez, zorionak opa nahi dizugu eta gehiago bete ditzazula!

Bestelakoak

- ❖ Harri zuri bat duen aliantza galdu nuen Kiroldegian. Barruan inskripzio bat dauka. **☎ 74 33 73**
- ❖ Mendiko kapa berde galdu dut San Roke inguruan. **☎ 74 16 61**
- ❖ Etxebizitza jatzeko denetik behar du Caritasek. **☎ 74 10 09 / 74 12 57**

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Drogomenpekotasun Z..741008
 Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
 Udal Kirol Patronatua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...743736
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia740842
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
 Herri Eskola74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Correo Español...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki irratia74 34 74

25 OSTIRALA

22,15 ZINE KLUBA

“El odio”

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

26 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“Striptease”

27 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

“Striptease”

28 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Striptease”

29 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Striptease”

31 OSTEGUNA

19,00 “EMAN EUSKARARI BERE!” KANPAINAREN AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

“Twister”

1 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Twister”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
26, larunbata:	Etxeberria	Escala
27, igandea:	Etxeberria	Escala
28, astelehena:	Ormazabal	Etxeberria
29, asteartea:	Ormazabal	Zabaleta
30, asteazkena:	Ormazabal	Escala
31, osteguna:	Ormazabal	Yudego
1, ostirala:	Yudego	Bidasolo

OKINDEGIA:

27, igandea: FOTERO

ZineA

Striptease

Zuzendaria: Andrew Bergman
Antzezleak: Demi Moore, Armand Assante, Ving Rhames

FBIko funtzionario ohi batek, Demi Moore-k, Floridako topless lokal batean lan egiten du gauetz, 7 urteko alabaren kustodia lortzeko dirua behar baitu. Egun batean mafiarekin arazoak dituen Kongresuko kide bat bere bizitzan sartzen da. Pelikularen elementu erakargarriena Demi Moore-n gorputz kurbaduna da. Gainontzean pelikulak ez ditu kritika oso onak jaso.



ONGARRI zine kluba

El odio

Zuzendaria: M. Kasovitz
Pariseko auzorik marjinatuenetan bizi diren emigrante gazteek pilatutako gorrotoari buruzko pelikula da. Auzo hauetatik Pariseko erdigunera doazen hiru gazteren noraezko bidaia deskribatzen da. Vinz judua da, Hubert, beltz afrikar bat eta Said arabiarra. Lagun arabiar baten osasun egoeraren berri jakin nahian Pariserara doaz. 24 orduko bidaian, hainbat zailtasunekin egingo dute topo: poliziak eta skinheads-ak.





1997ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko

KOMERTZIALA

telefono komertzial guztiak aterako ditugu.

prestatzen ari

Herritarrentzat gida erabilgarriena,

gara Elgoibar eta

erosoena eta errazena. Guri esker beti egongo zara zure bezeroen eskura, 365

Mendaroko telefono komertzial

egun zabalik, 24 ordu egunean. Zure negozioaren publizitatea egin nahi

guztiekin. 1996ko Gidan agertu

baduzu dei ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den komeni zaizuna:

ez bazinen edo daturen bat oker

izena negritaz ipini, publizitate moduluak,... aukera guztiak zure esku.

bazegoen deitu lehenbailehen

74 37 04



Azaroaren 1a, Domusantu Eguna

Aurrera goaz etengabe. Lan klasikoak eta modernoak egiten ditugu. Ideiak eskainiko dizkizugu. Zerbait berezia nahi baduzu, zatoz lehenbailehen.

